

■ Lau haur desagertu dira uholdeetako gunean

BI eta bost urte arteko lau haur desagertu ziren asteburuan uholdeak dauden guneetan. Iparraldean dagoen Hornburgen desagertu ziren bi, eta hegoaldeko Veitschocheinen beste bat. Senideek eta sorospen taldeek gero eta argiago dute gainezka egin zuten ibaietako urek eraman zituztela haurrak, eta ito egin zirela. Alarma egoeran daude Saxonia-Behea, Baden-Wutemberg, Ipar Renania-Westfalia eta Bavaria landerak. X

■ Gobernuak eta matxinoek bakea hitzartu dute ezustean

JOAO Bernardo Viera lehen-dakariak eta Ansumane Mane jeneral matxinoak bake akordioa sinatu zuten atzo Abuyán, azken bost hilabeteotako gatazka politiko eta militarari amaiera emateko. Bi aldeak egiten ari ziren elkarrizketak porrot egingo zutela uste zen, baina, azkenean, biek berretsi zuten joan den abuztuan hitzartutako su-etena. Akordioaren arabera, lehen-dakaria eta Legebiltzarra aukertzeko hauteskundeak egingo dira urtea amaitu aurretik. X

■ 11 lagun hil dira gutxienez, gas depositu bat lehertzean

GAS depositu batek eztanda egin zuen herenegun gauean Assam estatuan, ipar-ekialdean, eta gutxienez hamaika lagun hil ziren eta 100 inguru zauritu, iturri ofizialen arabera. Lekukoek esan zuten litekeena dela 30etik gora hil izana. Depositua gaueko 23:20an lehertu zen (iluntzeko 19:00ak Euskal Herrian). 45 minutu lehenago jabeak Poliziari deitu zion esanez ihesaldi bat egon zela. Eztandak ondoko etxeetako kristalak apurtu zituen. X



Isabel Allende
eta Juan Pablo
Letelier, atzo,
Londresera
iritsi zirenean.
EPA

Lorden Ganberako epaiketa prestatzen ari dira 'Pinochet kasuko' alde guztiak

Frantziako epaile batek Txileko diktadore ohia atxilotzeko agindua eman du

Erresuma Batuko auzitegi gorenak, Lorden Ganberak, bihar erabakiko du Augusto Pinochet diktadore ohia aske utzi edo ez. Hori dela eta, kasuko fiskaltza eta Pinochet defentsak buru-belarri ari dira lanean epaiketa prestatzen. Isabel Allende, Salvador Allende zenaren alaba, Londresen da fiskaltzari laguntzeko.

Agentziak / Londres-Paris

LORDEN GANBERAREN esku dago Pinochet kasuari buruzko azken erabakia hartzea. Joan den astean immunitatea aitortu zion epaitegi britainiar batek estatuburu izan zelako, baina, aldi berean, epai horri buruzko errekurtsioak aztertu arte ez aske uztea deliberatu zuen.

Fiskaltzak errekurritu egin zuten epaitegi horren erabakia, eta argudiatu zuen Pinocheti ez

dagokiola immunitaterik, eta beste edozein gaizkile bezala epaitu beharko luketela. Lorden Ganberari, Erresuma Batuko auzitegi gorenari, dagokio errekurtsio horri buruzko azken epaia ematea, eta, beraz, Pinochet aske utzi edo diktadore ohiaren kontrako prozesuarekin aurrera segitu edo ez erabakitzea.

Lorden Ganberako bost kideak bihar bilduko dira kasua aztertzeko, eta, horrenbestez, bai fiskaltza, bai Pinochet defentsak,

beren argudioak prestatzen ari dira buru-belarri. Ildo horretatik, Isabel Allende, Salvador Allende Txileko lehendakari zenaren alaba, eta Juan Pablo Letelier, Orlandako Letelier Atzerri ministro zenaren semea, Londresera iritsi ziren atzo. Allenderen eta Letelierren helburua da fiskaltzari kasua prestatzen laguntzea, diktadore ohia epaitua izan dadin. Allende eta Letelier Pinocheti ekintzen ondorioz hil ziren.

Analistek azaldu dutenez, Pinochetek aske geratzeko aukera handia dauka, Lorden Ganbera oso kontserbadorea baita. Hala ere, gero eta gehiago dira mundu zabalean diktadore ohiaren kontra zabaldu diren prozedurak. Belgikan eta Alemanian epailek Pinocheti kontrako

salaketak aintzat hartu zituztela jakin zen atzo. Bide beretik, Frantziako Roger Le Loire epaileak Pinochet atxilotzeko nazioarteko agindua eman zuen atzo. Frantziako Justiziaren arabera, gainera, norbaiten kontrako atxilotze agindua emateak inkulpatua dagoela esan nahi du. Bahiketa eta torturak leporatzen dizkio Le Loire epaileak Pinocheti.

Txileko Gobernuak eta Vatikanoa • Era berean, Vatikanoko atzo baietaztu zuen estatu horretako agintariak Txileko Gobernuak Atzerri Ministerioi idazkariorde Mariano Fernandezekin bildu direla Pinocheti egoeraz mintzatzeko. Vatikanoko iturriek zehaztu zuten Txileko Gobernuak eskatu zuela bilera. X

Wye Plantationeko akordioaren aplikatzea atzeratzea onartu egin du Arafatek, Netanyahuk hala eskatuta

■ Israelgo Gobernua gaur hasiko da akordioa eztabaidatzen, eta Legebiltzarra datorren ostegunean

Agentziak / Jerusalem

JASSER ARAFAT PAN Palestinar Aginte Nazionalako lehendakaria onartu egin zuen atzo Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroak egin zion eskaera, Wye Plantationeko akordioaren aplikazioa atzeratzeko. Arafatek eta Netanyahuk joan den urriaren 23an hitzartu zuten akordioa, eta atzo gauerdian jarri behar zuten indarrean.

Netanyahuk Arafati eskatu zion atzeratzeko, Israelgo Gobernuak eta Legebiltzarrak ez dutelako onartu. Gobernuak gaur hasiko da eztabaidatzen, eta ez du bihar baino lehenago bozka-



Errefuxiatu palestinarrek Israelen aurka oihu egiten.

EDDY TAMERIAN / AP

tuko. Legebiltzarraren erantzuna datorren astean izango da ziurrenik.

Akordioa indarrean jarri eta bi astera Israelgo Armada erretiratu da Zisjordaniako luraren % 13tik. Palestinarrek, berriz, zorrotz ekingo diote atentatu egileak harrapatzeari.

Palestinarren muturreko zortzi taldek Jihad-erako, gerra santurako, deia egin zuten Israelen eta Palestinarren arteko akordioa porrotera eramateko. Eta Hezbolla talde xiitak herenegun Beirut (Libano) palestinarrei eskatu zien Israelgo soldaduak eta kolonoak hiltzeko. Arafati traidore deitu zion Hezbolak. X

**KAMISETAK
IZERDI-JERTSEAK**
PUBLIZITATEA
 Sortarik onena preziorik onenean.
 Manga luzeko poloak, Txandalak, Txanoak...
 S. Stars by Fruit of the Loom
 Zerbitzu lasterra, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, eta Iparraldean
PHOENIX Pza. Zirkularra, 3 BILBO
Tel.: 94.423 11 68
 Kamiseta zure Argazkiarekin: 1.200